

2015eko OTSAILAREN 25ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **2 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko otsailaren 25ean, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
Bertaratutako zinegotziak	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Gloria Vazquez Herranz and. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn. M ^a Jose Lafuente Grasa and.
Ez da etorri	Irma Domingorena Zapirain and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2015eko urtarrilaren 28koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2015eko urtarrilaren 26tik otsailaren 20ra

Segidan, Alkatetzak 2015eko urtarrilaren 26tik otsailaren 20ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2015eko urtarrilaren 23tik otsailaren 13ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarra: : 2015eko urtarrilaren 23tik otsailaren 13ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- ZARAUZKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO KULTURA EDO GIZARTE ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA-ARAUBIDEZ EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi zuen, irailaren 17ko 396/2014 epaiaren bitartez, Estatuko Administrazioak jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsua. Errekurtsu hartan aurkartu egin zen, hain zuzen ere, Zarauzko Udalbatzarrak 2013ko otsailaren 27an hartutako erabaki hau: bai hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei bai irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-elkarteei diru-laguntzak emateko oinarri berezien aldaketari hasierako onespena emateko erabakia.

Zarauzko Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartzeko erabakia bertan behera geratu zen, 2013ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak hartu zuen erabakiaren ondorioz.

Hala eta guztiz ere, oinarriari dagokienez, epaiak 4-2 artikularen atal batzuk deuseztat jo zituen.

Hori horrela, epaian xedatutakoa betetzeko, Kultura Ereduaren Batzordeak proposamen bat aurkeztu du ZARAUZKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO KULTURA EDO

GIZARTE ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA-ARAUBIDEZ EMATEKO OINARRI BEREZIAK aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2015eko otsailaren 12an egindako bileran Kultura ereduaren informazio-batzordeak aurrez, gehiengoz, aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO KULTURA EDO GIZARTE ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA-ARAUBIDEZ EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETARI, 4. artikulua idatzera berriaren arabera.

IDAZKETA BERRIA

4. artikulua. Diru-laguntzarako irizpideak

4.2.- Euskararen erabilera normalizatzeko udal araudiaren arabera ondorengo irizpideak ezartzen dira:

a.- 18 urtez azpiko haur, nerabe eta gazteentzat berariaz antolatutako jardueretan euskararen erabilera bereziki bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzerakoan ere bai.

b.- Mezu idatziei dagokienez (kartel, esku-orri, prentsa-iragarki, sarrera-txartel eta gonbidapen, liburuxka, gutun, deialdi, ohar eta gisakoak), diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko dira; bestela, bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz). Elebitan egiten diren kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelera-azkoaren gainean) bai neurriaren aldetik. Euskarazko testuak zuzen idatzita daudela egiaztatzeko, diru-laguntza jasoko duen erakundeak Udaleko Euskara Zerbitzura jo ahal izango du. Irizpide honetatik kanpo geratuko lirateke, jatorriz, euskaraz ez diren liburu, aldizkari etab. beti ere beren itzulpena ekimenaren baliabide eta helburuetatik kanpo baleude.

c.- Ahozko komunikazioetan (aurkezleak, hizlariak, irakasle/monitoreak, bozgorailuetako mezuak, irratietakoak, jarritako musika...) euskara edo bi hizkuntza ofizialak (euskaraz eta gaztelaniaz) erabiliko dira. Biak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna. Hori bermatu ahal izateko, diru-laguntza jasoko duen erakundeak Udaleko Euskara Zerbitzura jo ahal izango du. Irizpide honetatik kanpo geratuko dira, jatorriz, euskaldun ez diren hizlari, mahaikide eta antzerakoak, beren solasgaiak edo jatorriak hala eskatuko balu.

d.- Diru-laguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea bazter utzi gabe. Hori bermatu ahal izateko, diru-laguntza jasoko duen erakundeak Udaleko Euskara Zerbitzura jo ahal izango du.

Aurrean aipatutako irizpideen arabera lortutako diru-laguntzaren % izango da ondoan zehazten dena:

- Euskara ez erabiltzea: %30a gehienez
- Jardueraren hedapen elebiduna: %70 arte gehienez.
- Jardueraren hedapen eta gauzatze elebiduna: %90 arte gehienez.
- Jardueraren hedapena eta gauzatzea euskara hutsez egitea: %100.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarrien aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

4.- ZARAUZKO UDALEKO ORGANIGRAMA, LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA ETA GIZA-BALIABIDEEN PLANA. BERRAZTERTZE ERREKURTSOAK

I.- 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu zituen, besteak beste:

Lehena.- AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO PROPOSAMENA izeneko dokumentua onartzea eta, ondorioz, UDALAREN ANTOLAKETA 2013 2013I3990038 espedienteari aurkeztutako alegazio, dokumentu eta ziurtagiriei erantzutea.

Bigarrena.- Zarauzko Udaleko eta “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoetako ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA onartzea, irizpen honen I. eranskinean jasotzen diren bezala. Lanpostuen deskribapen fitxa berri horiei dagozkien balorazioak ez dira indarrean sartuko Udalbatzarrak onartu artean.

Hirugarrena.- II. Eranskinean –TRANSIZIOZKO FUNTZIONAMENDU ALDIA- datozen neurriak onartzea, dokumentu horretan zehazten diren doiketa-beharrei aurre egiteko.

Laugarrena.- “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoak desegiteko espedientearen tramiteak hastea, Zarauzko Udalak zerbitzu horien kudeaketa zuzena egin ahal izateko, bere ondorio guztiakin.

Bosgarrena.- ZARAUZKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATU ETA ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA: 2014 GIZA BALIABIDE PLANA onartzea (III. eranskin modura jaso da). Programa horretan aurreikusitako efektiboen berresleipenak programa horretan adierazitako fasetan sartuko dira indarrean.

Seigarrena.- Zarauzko Udaleko eta, desegin artean, haren erakunde autonomoetako plantillan, lanpostuen zerrendan eta 2009 eta 2011ko lan eskaintza publikoetan egin beharreko aldaketak egin; eta hori guztia lege eta aurrekontu bitartekoen arabera.

Zazpigarrena.- Dokumentu hauek eragiten dituzten lanpostu sorrera eta aldaketen ondoriozko jardura administratiboak abian jar daitezela eskatzea. Alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari ematen zaio onartu diren dokumentuak interpretatzeko eskumena, aldez aurretik Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena eginda.

Zortzigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea, eta erakunde autonomoiei, Udal departamentuetako buruei, langileen ordezkariari eta eragindako langileei jakinaraztea.”

II.- Erabakiak argitaratu eta jakinarazi ondoren, akordio horien kontrako hainbat idatzi aurkeztu dira. Idatziok ondorengo kalifikazio juridikoak dituzte: Berraztertze errekurtsuak; argibide eskaerak alkate-udalburuari zuzenduta,

Udalbatzarrak hartutako erabakiari buruz; lortutako akordioak; antzemandako akatsak.

III. Horiei guztiei behar bezala erantzutea proposatzen da, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutako arrazoiekin bat etorritz, eta horretarako Giza Baliabideetan aurkeztu edo adierazi diren unearen arabera hurrenkera kronologikoa jarraituko da. Dokumentu hori espedientean sartuta dago, arrazoitze-ondorioetarako.

Horiek horrela, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita eta Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehen.- Koro Ondarra Errasti andreak aurkeztutako errekurtsua onartu eta, beraz, Estatistika eta Erroldako administrari lanpostuaren erreferentzia zuzentzea; aldiz, errekurtsua ezestea Organigramako mendekotasun hierarkikoari dagokionez, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Bigarrena.- Iñaki Iriondo Aizpurua jaunak aurkeztutako galderari erantzutea, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutakoaren arabera.

Ondorioz, II. eranskinen laugarren klausula aldatzen da. Beraz, honela geldituko da TRANSIZIOZKO FUNTZIONAMENDU ALDIA dokumentuko laugarren klausula:

"4.- INFORMATIKA:

IKTko arduradun lanpostua sartuta dago indarrean dagoen lanpostuen zerrendan, eta diru-kopuru bat izendatuta dauka 2015eko ekitaldiko aurrekontuetan (ekainetik aurrera). Egindako aurreikuspenen arabera, espero da lanpostu hori beteta egongo dela une horretatik aurrera. Lanpostua bete bitartean, ordea, IKTko Teknikari Laguntzaileak eta IKTko Laguntzaileak euren gain hartuko dituzte IKTko arduradun lanpostuaren funtzio jakin batzuk. Udal Langileen Buruzagitza Nagusiak zehaztuko ditu funtzio horiek. Horrek esan nahi du IKTko Teknikari Laguntzailearen eta IKTko Laguntzailearen lanpostuen balorazioan kontuan hartu beharko dela zirkunstantzia hori trantsizio-aldi horretan."

Hirugarrena.- Josu Amuskibar Gereka jaunak aurkeztutako galderari erantzutea, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutakoaren arabera.

Horiek horrela, II. eranskinen laugarren klausula aldatzen da. Beraz, honela geldituko da TRANSIZIOZKO FUNTZIONAMENDU ALDIA dokumentuko laugarren klausula:

“4.- INFORMATIKA:

IKTko arduradun lanpostua sartuta dago indarrean dagoen lanpostuen zerrendan, eta diru-kopuru bat izendatuta dauka 2015eko ekitaldiko aurrekontuetan (ekainetik aurrera). Egindako aurreikuspenen arabera, espero da lanpostu hori beteta egongo dela une horretatik aurrera. Lanpostua bete bitartean, ordea, IKTko Teknikari Laguntzaileak eta IKTko Laguntzaileak euren gain hartuko dituzte IKTko arduradun lanpostuaren funtzio jakin batzuk. Udal Langileen Buruzagitza Nagusiak zehaztuko ditu funtzio horiek. Horrek esan nahi du IKTko Teknikari Laguntzailearen eta IKTko Laguntzailearen lanpostuen balorazioan kontuan hartu beharko dela zirkunstantzia hori trantsizio-aldi horretan.”

Laugarrena.- Myriam Gonzalez de Txabarri andreak aurkeztutako errekurtsoren zati bat onartzea, “AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA” dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, ZARAUZKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATU ETA ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA: 2014 GIZA BALIABIDE PLANA dokumentua aldatzen da, ondorengo testu-zatia erantsita:

“5.2.BIS. PLAZEN BIRSAILKAPENA:

Zarauzko Udaleko organigrama eta lanpostuen deskribapen fitxen eskuliburuan sailkapen-talde bakarra duten lanpostuetan (bi sailkapen-talde dituzten lanpostuak sartu gabe), sailkapen-talde bakarra duten lanpostuak amortizatu egin behar dira, eta ondoren lanpostu berria sortu, organigramak esleitutako sailkapen-talde berria jarrita. Era berean, jatorrizko plazak iraungitzeko daudela adieraziko da, ondoren plaza berriak sortuko dira, eta bakoitzak bere sailkapen-talde esleitu berria izango du.”

Bosgarrena.- Ane Ramírez, M^a Cruz Odriozola eta Idoia Etxebarria andreak aurkeztutako errekurtsoa ezestea, “AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA” dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Seigarrena.- Esther Velasco Duran andreak aurkeztutako errekurtsoa onartzea, “AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA” dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, ZARAUZKO UDALEKO ETA “ZARAUZKO TURISMO BULEGOA” ETA “ZARAUZKO KIROL PATRONATUA” ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA dokumentua aldatzen da, honela:

009 fitxa euskarazko bertsioa. Funtzio hau kendu:

“- Udal hilerrri zerbitzuaren kudeaketa administratiboak egin: udal hilerrriko errolda mantendu eta eguneratu (titulartasun aldaketak, uko egiteak), hilero mugimenduen zerrenda kudeatu (leku aldaketak, panteoien garbiketa, lurperatzeak, emakidak), gorpuzkinak ikerketetan erabiltzeko eskaeren izapideak egin...”.

008 fitxa E.2. Prestakuntza atala aldatu. Honela geldituko da:

“Prestakuntza: Arlo hauetan: prozedura administratiboa, dokumentazioa artxibatzea, idazkari-lanetan orokorrean, errolda eta estatistika, etab. Informatikan, erabiltzaile maila: testu-prozesadorea, datu-basea, kalkulu-orria, etab.”

Zazpigarrena.- Irune Arregi Saizar andreak aurkeztutako errekurtsoa onartzea, “AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN

PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, ZARAUZKO UDALEKO ETA "ZARAUZKO TURISMO BULEGOA" ETA "ZARAUZKO KIROL PATRONATUA" ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA dokumentua aldatuko da, honela:

80 fitxa **Urbanizazioetako teknikaria**: D.2. eta D.3. atalak aldatu. Honela gelditzen dira:

"D.2. Laneko giroa: bulegokoa, askotan kanpoko obra eta lanetakoa.

D.3. Lanean egon daitezkeen arriskuak. Misioko istripuak Psikosozialak eta/edo psikolaboralak: estresa, motibazio eza... Ordenagailua asko erabiltzeagatik sortutakoak, postura berean egoteagatik eratorritakoak, ergonomia... Kanpoko lan eta obretako berezko arriskuak".

Zortzigarrena.- Gema Garrastazu Letemendia andreak aurkeztutako errekurtsioa ezestea, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutako arrazoiengatik, gradu pertsonalaren zatia izan ezik, horren zati bat onartzen baita, goiko dokumentu horretan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, honako hau adieraztea: Gradu pertsonalari dagokionez, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 15 eta 16 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Lanpostuen Zerrendan adieraziko da lanpostuari jarritako sailkapenari dagokion maila (1etik 30era), eta horrek "ad hoc" egindako prozedura bat behar du (hasierako onespena, jendaurrean jartzea, etab.). Gaur egun negoziazio fasean dagoenez udal antolaketa berriak behar duen lanpostu-zerrenda, lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen zeregina izango da erreklamatzailaren eskaera aztertzea eta, hala badagokio, hura onartzea edo baztertzea.

Bederatzigarrena.- Aloña Mendizabal Otamendi, Lourdes Olabarria Gorosabel, Edurne Eguren Bengoechea, Fatima Aranguren Eizagirre, Maider Aldaz Suquia eta Rakel Irigoien Izeta andreek aurkeztutako errekurtsioak ezestea, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutako arrazoiengatik, salbuespen batekin: Udalbatzaren akordioaren aurretik aurkeztutako alegazioetan ontzat eman ziren atalak. Horiek onartu egiten dira, goiko dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, ZARAUZKO UDALEKO ETA "ZARAUZKO TURISMO BULEGOA" ETA "ZARAUZKO KIROL PATRONATUA" ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA dokumentua aldatzen da, honela:

58. fitxa. **Ekintza soziokomunitarioko teknikaria**: C atala aldatzea (lanpostuaren funtzio orokorrak). Honako edukia izango du:

"C1: Lanpostuaren xede nagusia edo misioa

Departamentuko arduradunari lagundu ekintza soziokomunitarioaren arloa antolatzen eta gainbegiratzeko, eta hezkuntza eta osasun prebentzioaren arloan Zarauzko Udaleko lan eta programa guztiak diseinatu,

planifikatu eta ebaluatu, betiere indarrean dagoen araudiarekin eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak emandako ildo nagusiekin bat etorritz.

C2: Oinarrizko funtzioak

- Bere kargu dauden zerbitzuek eta baliabideek ondo funtziona dezaten lagundu.
- Udalerriko osasunaren eta droga-mendekotasunaren errealitatea aztertzen eta droga-mendekotasunen prebentzioan eta osasun hezkuntzaren arloan herrian sortzen diren behar berriak identifikatzen lagundu, betiere behar horiei erantzungo dieten proposamenak egiteko.
- Droga-mendekotasunen eta beste adikzio batzuen Tokiko Plana kudeatu, bultzatu, garatu, segimendua egin eta ebaluatu, bai eta osasun hezkuntzaren eta adikzioen prebentzioaren arloko beste edozein programa ere.
- Udaleko programa sozio-komunitarioen planifikazioa, kudeaketa, segimendua eta ebaluazioa egin, EKITALDI ETA JAIETAKO KOORDINATZAILEarekin koordinatuta. Era berean, jarduera horien berri eman informazio eta komunikazio teknologietako arduradunarekin batera.
- Antolaketa hobetzeko proposamenak egiten lagundu.
- Bere eskumen-arloko aurrekontuen proposamena prestatzen, eta horien kudeaketa eta segimendua egiten lagundu.
- Departamentuko gainerako langileei behar duten laguntza dokumental eta teknikoa eman, eta beharrezkoak diren koordinazio-bilerak egin horiekin.
- Beste departamentuetako teknikari eta politikariekin behar diren hartu-emanak eduki.
- Bere eskumen-arloko diru-laguntzak kontrolatu eta kudeatu.
- Udalaren web-orrian eta beste euskarri batzuetan (sare sozialak, etab.) bere jardute-esparruari buruz sartu beharreko informazioa kontrolatu eta lantzen lagundu, eta etengabe eguneratzen dela ziurtatu, Informazio eta komunikazio teknologietako departamentuarekin batera.
- Bere arloko helburuak bete diren kontrolatu aldian-aldian.
- Dagokion informazio-batzordera joan, eta zerbitzua dela-eta eskatzen zaizkion gainerako bileretan parte hartu.
- Bere esku-hartze arloak eskatzen dituen kontratazio proposamenak egin; beharrezkoa denean baldintza teknikoen agiriak idatzi; bere arloarekin lotutako kontratazio espedienteen esleipen proposamenak egin; eta kontratazio-mahaian parte hartu, hala eskatzen zaionean edo gaia dela-eta beharrezkoa denean.
- Jardueren eta atxikitako zerbitzuen urteko memoria prestatu, eta, aldian-aldian, egindako jardueren txostenak egin, bai eta behar diren gainerako txosten eta dokumentuak ere (akordio proposamenak eta/edo araudiak, idatziak, iragazkiak, ofizioak...).
- Bere arloan jarritako diru-laguntzak koordinatu eta eman, eta horiek prestatu, izapidetu eta segimendua egin.
- Bere esku-hartze arlorako diru-laguntzak eskatu eta kudeatu.
- Arlo hauetako udal jarduerak kudeatzen, koordinatzen, segimendua egiten eta ebaluatzen lagundu, beste erakunde eta administrazio batzuetako programa eta jardurekin.
- Gainerako departamentuekin eta arlo honetan esku hartzen duten udalerriko beste erakunde publiko edo pribatu batzuetako gizarte eragileekin koordinatu, eta informazioa trukatu, koordinatu eta eskura dauden baliabideak optimizatu, baita Udaletik kanpoko beste zerbitzu batzuekin ere (osasun zerbitzuak, hezkuntza...).
- Droga-mendekotasun arazoak dituzten adingabeen espedienteetan gizarte langileekin koordinatu eta, beharrezkoa denean, horiek kudeatu, Gizarte zerbitzuekin batera.
- Gizartearen mesederako lanei buruzko espedienteak kudeatu.
- Departamentuko arduradunarekin batera lan egin, gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten entitate, erakunde eta elkarteei udal lokalak lagatzeko espedienteak izapidetzen, eta horien segimendua eta kontrola egin.
- Beste administrazio publikoek osasunaren eta adikzioen prebentzioaren arloan prestatutako programak bultzatu eta egin.
- Hezkuntzako arduradunarekin batera material tekniko eta didaktikoa diseinatu eta egin, eta eskoletan banatu.
- Programak, zerbitzu bereziak eta baliabideak sortzeko eta/edo egokitzeko proposamenak prestatu, eta Udalera atxikitako langileei eta herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak diseinatu.
- Bere arloak bultzatzen dituen jarduera eta ekitaldi proposamenak prestatu, horiek egiteko EKITALDI ETA JAIETAKO KOORDINATZAILEarekin koordinatuta. Era berean, jarduera horien berri eman INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIETAKO ARDURADUNarekin batera.
- Jendearen galderak, iradokizunak eta kexak atzitu, eta horiei erantzun.
- Bere lanpostuaren eta/edo titulazioaren sailkapenaren arabera, langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartu, hala eskatzen zaionean.
- Immigrazio eta kultur aniztasuneko teknikari lanpostuaren errefortzu-lanak egin eta titularrak ordezkatu, beharrezkoa denean.

- Era berean, eskatzen zaizkion bestelako lanak egin, betiere lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera badira.”

60. fitxa. **Immigrazio eta kultur aniztasuneko teknikaria:** C atala aldatzea (lanpostuaren funtzio orokorrak). Honako edukia izango du:

“C1: Lanpostuaren xede nagusia edo misioa

Immigrazio eta kultur aniztasunaren arloa antolatzen eta gainbegiratzen lagundu, eta arlo horretan Zarauzko Udaleko lan eta programa guztiak diseinatu, planifikatu eta ebaluatu, betiere indarrean dagoen araudiarekin eta Udaleko GIZARTE ZERBITZUETAKO ARDURADUNAK emandako ildo nagusiekin bat etorritik.

C2: Oinarrizko funtzioak

- Bere kargu dauden zerbitzuek ondo funtziona dezaten zaintzen lagundu.
- Udalerriko immigrazioaren eta kultura aniztasunaren errealitatea aztertzen lagundu.
- Udalerririk bizi duen immigrazio prozesua kudeatu; kultura aniztasunean oinarritutako bizikidetzak bultzatu; Iritsi berriaren eta hura hartzen duten herritarren integrazioa sustatu; interakzio guneak sortu; eta bakoitzaren jatorria edozein izanda ere berdintasuna bermatu.
- Immigrazio eta kultur aniztasuneko programen planifikazioa, kudeaketa, segimendua eta ebaluazioa egin, halakorik balego, EKITALDI ETA JAIETAKO KOORDINATZAILEarekin koordinatuta. Era berean, jarduera horien berri eman Informazio eta Komunikazio Teknologietako arduradunarekin batera.
- Antolaketa hobetzeko proposamenak egiten lagundu.
- Arloko aurrekontuak proposatzen lagundu, eta horien kudeaketa eta segimendua egin.
- Departamentuko gainerako langileei behar duten laguntza dokumental eta tekniko eman, eta beharrezkoak diren koordinazio-bilerak egin horiekin.
- Beste departamentuetako teknikari eta politikariekin behar diren hartu-emanak eduki.
- Bere arloko diru-laguntzak kontrolatu eta kudeatu.
- Udalaren web-orrian eta beste euskarri batzuetan (sare sozialak, etab.) bere jardute-esparruari buruz sartu beharrek informazioa kontrolatzen eta lantzen lagundu, eta etengabe eguneratzen dela ziurtatu, Informazio eta komunikazio teknologietako departamentuarekin batera.
- Bere arloko helburuak bete diren kontrolatu aldian-aldian, horien arduradunekin.
- Dagokion informazio-batzordera joan, eta zerbitzua dela-eta eskatzen zaizkion gainerako bileretan parte hartu.
- Bere esku-hartze arloak eskatzen dituen kontratazioen proposamenak egin; beharrezkoa denean baldintza teknikoak agiriak idatzi; bere arloarekin lotutako kontratazio espedienteen esleipen proposamenak egin; eta kontratazio-mahaian parte hartu, hala eskatzen zaionean edo gaia dela-eta beharrezkoa denean.
- Immigrazioaren eta kultur aniztasunaren tokiko plana prestatu.
- Jardueren eta atxikitako zerbitzuen urteko memoria prestatu, eta, aldian-aldian, egindako jardueren txostenak egin, bai eta behar diren gainerako txosten eta dokumentuak ere (akordio proposamenak eta/edo araudiak, idatziak, iragazkiak, ofizioak...).
- Bere arloan jarritako diru-laguntzak koordinatu eta eman, eta horiek prestatu, izapidetu eta segimendua egin.
- Bere esku-hartze arlorako diru-laguntzak eskatu eta kudeatu.
- Departamentuko protokoloak kudeatu, koordinatu, segimendua egin eta ebaluatu, etorkinei harrera ona egiteko (harrera protokoloa).
- Gainerako udal departamentuei aholkuak eman immigrazioaren eta kultur aniztasunaren gaietan.
- Gainerako departamentuekin eta etorkinen gizarteratze bidean esku hartzen duten udalerriko beste erakunde publiko edo pribatu batzuetako gizarte eragileekin koordinatu, eta informazioa trukatu, koordinatu eta eskura dauden baliabideak optimizatu, baita Udaletik kanpoko beste zerbitzu batzuekin ere (osasun zerbitzuak, hezkuntza...).
- Gizarte zerbitzuetako arduradunarekin lan egin, etorkinak gizarteratzeko hitzarmenak prestatzen.
- Beste administrazio publikoek immigrazioaren eta kultur aniztasunaren arloan prestatutako programak bultzatu eta egin, bai eta departamentuan bertan sustatutako programak ere (denboraren bankua...) edota berariaz izendatzen zaion beste edozein ere.
- Hezkuntzako arduradunarekin batera material tekniko eta didaktikoa diseinatu eta egin, eta eskoletan banatu.
- Garapenaren aldeko kooperazioaren arloan, Gobernu Kanpoko Erakundeekin solaskide lanetan jardun, erakunde horien eskaerak aurrera eramateko behar diren izapide guztiak egin, eta Gobernu Kanpoko Erakundeei lagapenean utzitako udal lokalak kudeatu.
- Departamentuko arduradunarekin batera lan egin gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten entitate, erakunde eta elkarteek egiten dituzten eskaerekin lotutako espedienteak izapidetzen, udal lokalen lagapenei buruzko eskaeretan izan ezik.

- Udalerriko kultur aniztasunaren onarpena bultzatzeko programak, zerbitzu bereziak eta baliabideak sortzeko eta/edo egokitzeko proposamenak prestatu, eta Udalera atxikitako langileei eta herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak diseinatu, kultur aniztasun hori sustatu eta zabaltzeko.
- Bere lurralde eremuan egon daitezkeen diskriminazio egoerak identifikatu, eta halakoak errotik kentzeko neurriak diseinatu eta bultzatu.
- Bere arloak bultzatzen dituen jarduera eta ekitaldi proposamenak prestatu, horiek egiteko EKITALDI ETA JAIETAKO KOORDINATZAILEarekin koordinatuta. Era berean, jarduera horien berri eman, Informazio eta Komunikazio Teknologietako arduradunarekin batera.
- Jendearen kontsultak, iradokizunak eta kexak atenditu, eta horiei erantzun.
- Bere lanpostuaren eta/edo titulazioaren sailkapenaren arabera, langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartu, hala eskatzen zaionean.
- Ekintza soziokomunitarioko teknikari lanpostuaren errefortzu-lanak egin eta titularra ordezkatu, beharrezkoa denean.
- Era berean, eskatzen zaizkion bestelako lanak egin, betiere lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera badira."

51 eta 61 arteko fitxak. Terminologia bateratu: "gizarte zerbitzuak".

Hamargarrena.- Maider Argote Larrañaga andreak aurkeztutako errekurtsioa ezestea, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Hamaikagarrena.- Eider Illarramendi Azkue andreak eta Fernando Llopis Lucas jaunak lortutako akordioaren zati bat berrestea, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, II. eranskina — TRANTSIZIOZKO FUNTZIONAMENDU ALDIA — aldatu egingo da, honela:

"6.- EKITALDI ETA JAIK:

Ekitaldi eta jaietako koordinatzailearen lanpostu berriak 2015eko bigarren sei hilekorako hornituta egon beharko du, aurretik adierazi den berresleipenez. Hala ere aldez aurretik hornitu daiteke, behin-behinean, beste izendapen batekin."

Ondorioz, honako hau adieraztea: Gradu pertsonalari, dedikazioari eta prestasunari dagokionez, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 15 eta 16 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Lanpostuen Zerrendan adieraziko da lanpostuari jarritako sailkapenari dagokion maila (1etik 30era), eta horrek "ad hoc" egindako prozedura bat behar du (hasierako onespina, jendaurrean jartzea, etab.). Gaur egun negoziazio fasean dagoenez udal antolaketa berriak behar duen lanpostu-zerrenda, lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen zeregina izango da erreklamatzaileraren eskaera aztertzea eta, hala badagokio, hura onartzea edo baztertzea.

Hamabigarrena.- Nikolas Bengoetxea Izeta jaunak aurkeztutako errekurtsioari erantzutea, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Lehen puntuaren zati bat onartzea (organigrama).

Onorioz, ZARAUZKO UDALEKO ETA “ZARAUZKO TURISMO BULEGOA” ETA “ZARAUZKO KIROL PATRONATUA” ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA dokumentua aldatuko da, honela:

93 Bis fitxa **LORATEGIETAKO ARDURADUNA** sortu. Eduki hau izango du:

LANPOSTUAREN DESKRIBAPEN FITXA

A. IDENTIFIKAZIOA

Arloa/Departamentua: HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK
Lanpostuaren izena: LORATEGIETAKO ARDURADUNA
Tipologia: Oinarrizko lanpostua

B. LAN ORDUTEGIA

Asteko ordutegia: Lanaldia, urte osorako onartzen den egutegiaren arabera
Lanaldi mota: Normalean asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.
Noizean behin lanaldi zatitua zerbitzuaren beharregatik, bilerregatik, etab..

C. LANPOSTUAREN FUNTZIO OROKORRAK

C.1. Lanpostuaren xede nagusia edo misioa

Udaleko lorezaintza lanak egin, kanpoko lorezaintza enprekin batera, halakorik balego. Era berean, zerbitzueta teknikiarekin batera lan egin lorategiak diseinatzen, lorategi berriak egiten eta egun daudenak berritzen parte hartzen.

C.2. Oinarrizko funtzioak

- Herriko lorategi eta berdegune berriak jartzen parte hartu.
- Lorezain ofizioaren berezko zereginak egin (besteak beste, inausketa, ureztaketa, landaketak, sulfatazioa edo ongarritzea).
- Landa bideen egoera eta mantentze-lanak eta ibilgu eta ubideen garbiketa kudeatu.
- Laneko parteak ondo bete.
- Urbanizazio berrien harrera egiten lagundu.
- Bere funtzioak betetzeko beharrezko material txikia erosi, Mantentze-lanetako arduradunaren agindupean; eta stocka kontrolatu, behar denean material berria ekartzeko.
- Lorategiak proiektatzen, berriak egiten eta daudenak berritzen lagundu. Kanpoko lorezaintza enpresek egiten dituzten aldaketak eta proposamenak gainbegiratzen lagundu.
- *Zuhaitz, landare, zuhaixka berriak jartzeko eta lorezaintzako gainerako material eta tresnak erosteko eskaerak eta aurrekontuak prestatzen lagundu.*
- Zerbitzueta teknikiari lagundu kanpoko lorezaintza enpresen kudeaketa kontrolatzen (kanpoko enpresek egin beharrezko lanen zerrenda prestatu eta planifikatu, lanen segimendua egiteko aldizkako bilera antolatu, erabilitako langileak eta makinak kontrolatu, baldintzen agiriak betetzen ote diren zaindu, etab.).
- Zuhaitzei eta berdeguneei buruz herritarrek egiten dituzten kexak eta iradokizunak atentitu, informazioa eman eta erantzun.
- Txostenak, balorazioak eta proposamenak egin, gero Mantentze-lanetako arduradunari aurkezteko.
- Herriko zuhaitzen inausketa eta mozketak, aldaketak eta ordezkaketak kudeatzen lagundu.
- Tratamendu fitosanitarioak planifikatzen eta kudeatzen lagundu eta izurriteen kontrol integrala egin.
- Berdegune eta zuhaitziekin lotutako hezkuntza eta zabalkunde ekintzak egiteko proposamenak egiten eta martxan jartzen parte hartu (Zuhaitz Eguna, eskola baratza, zakur-gorotzen kontrako kanpaina...).
- Zuhaitzen eta berdeguneein inbentarioa gainbegiratzen eta eguneratzen lagundu. Inbentario hori lorezaintzako enpresa esleipendunak egindakoa da.
- Ibilgailuak gidatu, esku-hartze bakoitzerako materialak garraiatzeko beharrezkoa denean.
- Era berean, eskatzen zaizkion bestelako lanak egin, betiere lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera.

D. LAN BALDINTZAK

D.1. Ahalegin fisikoa

Askotan ahalegin handia, erdi mailako pisua duten objektuak eta tresnak (10-30 kg) zutikako lan-posizioan eta posizio behartuetan eusteak eta/edo erabiltzeak eskatzen duena. Baloratzeko dago.

D.2. Laneko giroa

Kanpoko lanetakoa, denbora luzean Baloratzeko dago.

D.3. Lanean egon daitezkeen arriskuak

Lanpostuarekin zerikusia duten lan-arriskuak. Baloratzeko dago.

E. LANPOSTUA BETETZEA

E.1. Lanpostua betetzeko baldintzak

Titulazioa: Langile funtzionarioen "CI" sailkapen-taldearen titulazioaren baliokidea.

Beste batzuk: B gidabaimena.

Euskararen ezagutza.

E.2. Lanpostua betetzerakoan kontuan hartzeko merezimenduak

Prestakuntza:

Arlo hauetan: lorezaintzan orokorrean, lorategien mantentze-lan eta antolaketan, lorategi publikoen kontserbazioan, etab.

Informatikan, erabiltzaile maila: testu-prozesadorea, datu-basea, eta kalkulu-orria.

Esperientzia:

Administrazio publikoan eta/edo sektore pribatuan lorategi eta berdeguneen mantentze-lanetan.

Fitxa hori eta bere edukia sortzeko akordioa behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka jarraian agertzen diren errekurtsioak aurkeztu ahal dira:

- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSIOA: aukerazkoa, erabakia hartu duen organoari, HILABETEKO epean, akordioa jakinarazten denetik kontaktzen hasita. Errekurtsioa aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsioa onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSIOA: Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, BI HILABETEKO epean, erabakia jakinarazten denetik kontaktzen hasita; edota, administrazioaren isilunearen ondorioz ezetsi bada, sei hilabete epean. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio jartzeari utzi gabe.

Aplikatzekoa den legeria: azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoa; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoa.

Bigarren puntua ezestea (funtzioen eskuliburua: lanaldia).

Azken puntua onartzea (funtzioen eskuliburua: lan-baldintzak)

Ondorioz, ZARAUZKO UDALEKO ETA "ZARAUZKO TURISMO BULEGOA" ETA "ZARAUZKO KIROL PATRONATUA" ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA dokumentua aldatzen da, honela:

76 fitxa **Bulego teknikoko arduraduna**, 77 **Zerbitzuetako teknikaria**, 79 **Eraikuntzetako teknikaria**, 80 **Urbanizazioetako teknikaria**, 82 **Instalazioetako teknikaria**, 84 **Mantentze-lanetakoa arduraduna**: D.2 eta D.3 atalak aldatu. Honela:

"D.2. Laneko giroa: bulegokoa, askotan kanpoko obra eta lanetakoa.

D.3. Lanean egon daitezkeen arriskuak. Misioko istripuak. Psikosozialak eta/edo psikolaboralak: estresa, motibazio eza.. Ordenagailua asko erabiltzeagatik sortutakoak, postura berean egoteagatik eratorritakoak, ergonomia... Kanpoko lan eta obretako berezko arriskuak”.

Hamahirugarrena.- Ander Escudero Esnal jaunak aurkeztutako errekurtsua ezestea, “AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA” dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Hamalauugarrena.- Eider Illarramendi Azkue, Unai Egaña Makazaga eta Edurne Etxeberria Amuskibar jaun-andreek aurkeztutako akats-zuzenketa onartzea, “AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA” dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, ZARAUZKO UDALEKO ETA “ZARAUZKO TURISMO BULEGOA” ETA “ZARAUZKO KIROL PATRONATUA” ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA dokumentua aldatuko da, honela:

38 fitxa **Kultur eraikinetako zaintzailea:** B atala (Lan-ordutegia) aldatzea. Honela geldituko da:

“Asteko ordutegia: Lanaldia urte osorako onartzen den egutegiaren arabera. Lanaldi mota: astelehenetik ostiralera lanaldi jarraitua arratsalde 20:15ak arte. Larunbat arratsaldetan; aparteko zerbitzu modura konpentsatuko da.”

Hamabosgarrena.- Zarauzko Udaleko plantillan, lanpostuen zerrendan eta 2009 eta 2011ko lan eskaintza publikoetan egin beharreko aldaketak egin, hartutako akordioek eragindako ataletan; eta hori guztia lege eta aurrekontu bitartekoekin bat etorritz.

Hamaseigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea, eta Udal departamentuetako arduradunei, langileen ordezkariari eta eragindako langileei jakinaraztea.”

5.- KIROLETAKO INFORMAZIO-BATZORDEAK BILERA EGITEKO EGUNA ALDATZEA

2015eko urtarrilaren 28an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen KIROLETAKO INFORMAZIO-BATZORDEA eratzea eta horren bilerak hilean behin egitea: hirugarren ostegunean, arratseko 19:00etan.

Kiroletako informazio-batzordeak berak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

KIROLETAKO INFORMAZIO-BATZORDEAK bilera egiteko ordua aldatzea eta, aurrerantzean, hilean behin, hirugarren ostegunean, arratsaldeko 13:45ean egitea.

6.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Merkataritza eta Inbertsioari buruzko Hitzarmen Transatlantikoa aplikatzearen kontrako Udalerritik aitortzeko mozioa

Ondoren, ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Honela dio:

“Mozioa: Adieraztea Zarauzko Udala Europaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena (TTIP) aplikatzearen kontra dagoela. Mozioaren zioak:

ZIOEN AZALPENA

2013an Europako Batzordeak agindu bat jaso zuen Europar Batasuneko estatu kideetatik: negoziatzea zezala Estatu Batuekin Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena (TTIP ingeles sigletan), Merkataritza Libreko Akordio Transatlantiko bezala ere ezagutzen dena. Helburua ustez zen Europar Batasunaren (EB) eta Ameriketako Estatu Batuen (AEB) arteko merkataritza handitzea, muga-zergak ez diren oztopoak murriztuz, eta horrela enpleguaren sorrera, hazkunde ekonomikoa eta lehiakortasunaren hobekuntza lortzea.

Harrezkero merkataritza eta inbertsioak liberalizatzeko akordioa negoziatzen ari dira EB eta AEB, baina hori bai, herritarrei eta haien ordezkari politikoei bizkarra emanda (nazioetako eta Europako parlamentuak). Akordio hori oso arriskutsua da demokraziarentzat eta lan, ingurumen eta osasun eskubideentzat, inbertsore eta enpresa transnazionalen interes komertzialak jarri baitituzte interes orokorraren aurretik. Informazioa oso mugatua da, eta udalerritik eta hiriek gogor kritikatzeko dute negoziazioetan hain eragile gutxi aritzea, izan ere, negoziazio horien emaitzak inplikazio izugarriak izango ditu haientzat.

EB barruko eskualdeetako gobernuek eskubidea dute Europa mailan hitzartuko den legediari buruzko informazioa jasotzeko eta euren iritzia emateko, legedi horrek zuzenean eragingo baitie. Hala ere, Europako eskualdeei oraindik ez zaie eskubide hori eman, TTIP hitzarmenaren baitan egiten ari diren negoziazioetan.

AEB eta EB ahaleginak egiten ari dira inbertsoreen aldeko babes-neurriak sartzeko TTIP hitzarmenean. Kolektibo horren eta estatuaren artean gatazkak sortzen badira, Arbitraje Batzorde bat arduratuko da horiek konpontzeaz (“Investor-to-State Dispute Settlement”). Organo horrek eskumena izango du inbertsoreen aldeko ordain ekonomikoak jartzeko estatuei, baldin inbertsoreek frogatzen badute estatuek **zenbait neurri aplikatzen dituztela (esate baterako, ingurumena babesteko estandarrak handitzea)** edo murriztu egiten direla konpainiaren etorkizuneko etekinak. Estatuak, halakoetan, erabakiaren aurkako errekurtsioa jar dezake epaitegietan, eta agian arrazoia emango zaio, baina horrek guztiak kostu prozesal oso altuak ekarriko dizkio. Gainera, arbitraje organoen erabakiak irmoak dira, eta ezin dira apelatu.

Zerbitzu publikoak eraginkorrak izatea interesatzen zaie herritarrei, bizi-kalitate ona edukiko dutela bermatzeko. Lisboako Itunak eskumena ematen die EBko estatu kideei interes orokorreko zerbitzuak definitu eta antolatzeko. Beraz, EBko itunetako terminologia bera eduki behar du akordioak, eta batez ere Lisboako Ituneko, funtsezko papera betetzen baitu “interes orokorreko zerbitzuetan”. Horregatik, desegokia da “erabilgarritasun publiko” terminoa, akordioaren terminologian erabiltzen dena.

Kontratazio publikoari dagokionez helburu hau lortu nahi da TTIPekin: Munduko Merkataritza Antolakundearen (WTO) Kontratazio Publikoko Akordioa (GPA) mantentzea, harik eta hobetutako beste akordio bat sortu arte. Aitzakia modura GPA erabiltzen ari da EBko Batzordea kontratazio publikoko legean bermeak murrizteko.

Bermeak handitzeko, eta ez murrizteko, izan behar du edozein akordio, baita kontratazio publikoak ere. Gainera akordio horrek ez ditu arriskuan jarri behar EBko kontratazio publikoen legearen alderdi progresiboak eta, bereziki, eskualdeko eta herrietako garapena bultzatzen dutenak. Gai horiek garrantzitsuak dira, ez dutelako uzten prezioa bakarrik kontuan hartzen kontratazio publikoak egitean, baizik eta beste kontu batzuk ere aintzat hartzen direlako (esate baterako, ingurumenarekin eta alderdi sozialekin lotutakoak).

TTIPen helburua, ordea, zerbitzu publikoak guztiz liberalizatzea da eta atear irekitzea enpresa transnazionalen zerbitzu horiek emateari eta Administrazio Publikoen ondasun eta zerbitzuak erosi eta lizitatzeari. Helburu horrek arriskuan jartzen ditu zerbitzu publiko guztiak eta erosketak publiko guztiak, aginte maila guztietan, eta zalantzan jartzen du, baita, ordezkari hautetsiek daukaten ahalmena euren tokiko komunitateak libreki administratzeko eta tokiko industria, enplegua eta ekimenak libreki administratzeko.

Beraz, merkataritzaren legeak beste edozein alderdi sozialen gainetik jarriko dira, eta ez dira kontuan hartuko kontinente, nazio, eskualde edo tokiko beste legediak. Gaur egun toki-komunitateak egiturazko doikuntza murriztaileen menpe daude, merkataritza librea eta inbertsoreak babesteko akordio eta politiken ondorioz. Logika horrek desegin egiten ditu zerbitzu publikoak, eta tokiko agintariei askatasuna kentzen die zerbitzu publikoak emateko eta euren herritarren behar sozialak asetzeko, tokiko garapen industrialaren eta industria eta enpleguaren aldeko sustapen politika eta planekin bat etorritik.

Europako hiriek eta herriek badakite zein garrantzitsua den salgaien eta zerbitzuen merkataritza herritarren ongizaterako. Hala ere, lehiakortasunak eta garapen ekonomikoak ez dute irizpide bakar izan behar TTIP eta horrelako beste akordio komertzial batzuk egiteko. Hau da, gai ekologiko eta sozialak ere kontuan izan behar dira alde biko edozein negoziazio komertzialetan. Garrantzitsua da baita ere azterketa konparatibo bat egitea, hitzarmenak arlo horietan sortuko lituzkeen kostuen eta hark ekarriko lituzkeen usteko abantailen artean. Azterketa horretan ez dira hitzarmenaren ondorio ekonomiko potentzialak bakarrik sartuko, ez; kontuan hartuko da TTIPek izan dezakeen inpaktua arlo sozialean, ekonomikoan, sanitarioan, kulturean eta ingurumenean, bai EBn bai AEBetan.

Tokiko administrazioek debate publikoa eta demokratikoa bultzatu behar dute, akordio horren atzean benetan dagoenari buruz eta zerbitzu eta erosketa publikoek izango duten etorkizunari buruz:

- Merkataritza eta inbertsioa guztion onerako izango dira, eta elkartruke ekonomiko eta sozial onuragarriak ekarriko dituzte, baldin leku guztietako herritarren beharrak errespetatzen badira eta ez badira finantza-espekulatzailen eta enpresa multinazionalen onuretan bakarrik oinarritzen.
- Zerbitzu publikoen suntsitze programatu eta progresiboak berekin dakar aldi berean elkartasun eta demokraziaren suntsitze programatu eta progresiboa.
- Konpetentziari erabat irekitzen bazaizkio zerbitzu eta erosketa publikoen atak, ondorio kaltegarriak sortuko ditu horien irisgarritasunean, kalitatean eta kostuetan.
- Eskubide sozialak eskubide besterenezinak dira, beraz, ezin dute merkatuen logikaren mende egon.
- Zerbitzu publiko anitz eta sozialki erabilgarriek bakarrik bermatu dezakete bizi-kalitate duina guztiontzat eta leku guztietan, eta hori guztiz lotuta dago benetako demokraziaren jardunarekin.
- Kontrol publikoa zaindu egin behar da, denok ondasun publikoetara iritsi ahal izateko eta zerbitzu publiko berriak sortzeko, bai eta tokiko industria eta enplegua bultzatzeko ere.

Horiek horrela, Ezker Anitza-Izquierda Unida udal taldeak ondorengo mozioa aurkezten dio Udalbatzarrari, azter dezan.

MOZIOA

1. Adieraztea Udal hau TTIP itunarekiko intsumisioa eta kontrakoa dela eta oinarritzko zerbitzu publikoak defendatzen dituela, elkartasunaren eta birbanatze sozialaren alde.
2. Espainiako Gobernuko Administrazio Publikoetako Ministerioari eskatzea babes ditzala **“sozialki zerbitzu erabilgarri”** izenekoan izaera publikoa mantentzeko egiten diren ekimen guztiak.
3. Ekonomia Ministerioari eskatzea eten ditzala TTIP eta antzeko akordio komertzialen negoziazioak, helburu hauek lortzeko:
 - ISDS eta horrelako mekanismoak ez sartzeari, ez hitzarmen honetan ezta beste edozeinetan.
 - EBko eta haren estatuetako egungo politika arautzailea defendatzea, eskumenak gal ez daitezen legedi sozialean, kontsumitzaileen babesean eta ingurumen gaietan.

- Hitzarmena ez izatea bakarrik helburu ekonomikoei buruzkoa, eta helburu sozialei eta ingurumenekoei ere akordioan garrantzi bera ematea eta berdin tratatzea.
- Negoziazioen egungo gardentasun gabezia bukatzea, informazio guztia argitaratzea eta EBn eta bertako parlamentu nazionaletan eztabaida publiko bat irekitzea.
- Zerbitzu publikoak eta jabetza intelektuala akordiotik kentzea.

4. Akordio hau Kanpo Arazoetako Ministeriora eta Europako Parlamentuko buruzagitzara bidaltzea.”

Udalbatzarrek ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

b) Bildu eta Aralar-Ezker Anitza taldeek: Erregistro Zibilari buruzko mozioa

Hurrena, BILDU eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeek aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Hona hemen mozioa:

“Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (gure kasuan Eusko Jarlaritzaren Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzailei emanaz, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere

Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Aurtengo otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

1.- 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.

2.- Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.

3.- Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jarduera izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.

4.- Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.

5.- Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituak zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.

6.- Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta, Zarauzko udalaren Osoko Bilkurari hurrengo AKORDIO hau onartzeko eskatzen dizkiogu:

- Zarauzko Udalak Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka agertzen da.
- Zarauzko Udalak adierazten du Zarauzko bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.
- Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, Zarauzko Udalak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.
- Akordio honen berri ematea Zarauzko bake epaitegiari, Justizia Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzko Justizia Sailari.”

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

c) Bildu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Espainiako Gobernuaren ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzearen kontrako mozioa

Azkenik, BILDU taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hona hemen mozioa:

Espainiako Gobernuaren ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzeak bete-betean harrapatu gaitu UEMA eta bertako udalak. Kontratazioetako hizkuntza irizpideak, diru-laguntzetarako hizkuntza irizpideak, aktak euskaraz bidaltzea edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak susmopean jarri dituzte. Bi udalek UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko hartutako erabakiaren aurka ere jo du Espainiako Gobernuaren ordezkariak.

Horrela, udalen eguneroko jarduna eta udalok euskara sustatzeko egiten ari garen lana baldintzatzen dute. Administrazio publikoak hainbat zerbitzu erdara hutsean eskaintzen dituen bitartean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko prestatuta gauden udalak dira susmopean jarri nahi izan dituztenak.

Egoera larria da. Euskararen ofizialtasuna bera ari dira zalantzan ipintzen. Teorian euskara zein gaztelania hizkuntza ofizialak dira Euskal Erkidego Autonomoan. Baina, praktikan euskarak, erdara erabili ezean, ez duela balio ofizialik esaten digute errekerimendu eta helegiteen bitartez.

Egoera honen aurrean **Zarauzko Udalak** adierazi nahi du:

1. **Zarauzko Udalak** euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.
2. Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerrri euskaldunak, euskararen arnasmuneak indartzeko politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnasmuneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.
3. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatzen dugu. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko eskatzen dugu.
4. Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak babestu ditzan.
5. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egingo den Manifestazioarekin bat egin nahi du **Zarauzko Udalak**. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko.”

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarrak laurden gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.